



GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EDUCACIÓN

# Hobetzeko proposamenak Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena Ikasturtea 2008/2009



CONSEJO  
ESCOLAR  
DEL ESTADO

[educacion.es](http://educacion.es)

# **Hobetzeko proposamenak**

*Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko txostena*

*2008/2009 ikasturtea*



**MINISTERIO DE EDUCACIÓN**  
Consejo Escolar de Estado

Edita:  
© SECRETARÍA GENERAL TÉCNICA  
Subdirección General de Documentación y Publicaciones

Catálogo de publicaciones del Ministerio: [educacion.es](http://educacion.es)  
Catálogo general de publicaciones oficiales: [060.es](http://060.es)

Fecha de edición: 2010  
NIPO: 820-10-125-8

Depósito Legal: M-31833-2010

Imprime: Estilo Estugraf Impresores, S.L.

# Aurkibidea

---

## Orrialdea

<b>Aurkezpena</b> .....	<b>7</b>
<b>Hobetzeko proposamenak</b> .....	<b>11</b>
0. Orokorrak .....	11
1. Haur Hezkuntza .....	13
2. Lehen Hezkuntza .....	14
3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza .....	16
4. Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza: Batxilergoa eta Lanbide Heziketa .....	18
5. Hezkuntza-gastua .....	20
6. Bizikidetza eta berdintasuna ikastetxeetan .....	21
7. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza .....	23
8. Irakasleen hasierako prestakuntza .....	24
9. Ezintasunetik eratorritako hezkuntza-beharrian bereziak dituzten ikasleak txertatzea .....	25



## Aurkezpena

---

2010ean hogeita bost urte beteko ditu uztailaren 3ko 8/1985 Lege Organikoak, hezkuntza-eskubidea arautzen duenak. Hala, bada, lege horrek eraturako Estatuko Eskola Kontseiluak ekainaren 1eko osoko bilkuran onartu zuen 2008/2009 ikasturteari dagokion Espainiako hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko hogeita hirugarren txostena. Era horretan bete du unibertsitatez kanpoko ikasketen aholkularitza- eta partaidetza-organo gorenak legeak egotzitako eginkizuna, hots, hezkuntzako plangintza orokorrean parte hartzea eta txosten hau egin, onartu eta plazaratzea.

Lisboako Estrategiak 2010. urterako ezarritako helburuak bete diren aztertzeko unea den honetan, aitortu behar da txosten honek jasotako diagnosian Espainiako hezkuntza-sistemak argi-itzalak dituela. Zenbait arlotan aurrerabideak ukaezinak badira ere (esate baterako, Haur Hezkuntzako eskolatzeari, unibertsitate-tituludunen tasei eta helduen hezkuntzari dagokienez), arazo larri batzuek bere horretan diraute gure sisteman (gazteen titulazio-gabezia, eta hezkuntza edo prestakuntza nahi baino goizago uztea), eta berehala jorratu beharko genituzke guztion ahaleginez.

Izan ere, gure hezkuntza-sistemaren ahultasun horiek esanahi berezia hartzen dute krisi ekonomikoko egoera honetan. Herritarrek lana birmoldatzeak dakartzan eskakizun etengabeetara doitzeko beharra daukate, eta herrialdeak, berriz, giza baliabideak mobilizatzea, aurrera egin ahal izateko. Hori dela eta, ikasleei heziketa sendoa ematea ezin geroratzeko premia da. Hezkuntza-sistemak lortu behar du ikasleen % 100ek etorkizun bat izatea bai hezkuntzari eta bai lanbide-heziketari dagokionez, eta erraztasunak jarri behar dizkie ikasketak utzi dituztenei hezkuntza-sistemara itzultzeko, prestakuntza eta lana bateratzeko modu erakargarriak eskainiz.

Gure sistemaren berdintasun- eta arrakasta-gabeziak arduratuta daukate Kontseilua. Izan ere, derrigorrezko ikasketen ondoren tituluak eskuratzen dituzten biztanleen artean berdintasun onargarri bat gailentzen bada ere, beste arlo batzuetan ez da hain agerikoa: gazteen % 30ak, adibidez, ez du derrigorrezko hezkuntzako titulua eskuratzen, eta autonomia-erkidegoen artean ere alde handiak daude, bai hezkuntzako emaitzei dagokienez eta bai egokitasun- edota uzte-tasei dagokienez.

Hortaz, Espainiako hezkuntzaren kalitatea hobetzea da lehentasunezko helburua. Eta kalitatea hobetzeak esan nahi du, emaitza onak ez ezik, oreka lortu behar dela lurralde guztien berdintasunaren eta bikaintasunaren artean, eta ikasle guztiek lortu behar dituztela ahal bezain emaitzarik onenak, beren ikastetxea gorabehera. Horretarako, ezinbestekoa da eskolatze orekatua bermatzea ikastetxe guztietan, eta arreta egokia ematea zailtasun gehien dituzten ikasleei.

Gainera, funtsezkoa da, batetik, adierazleez baliatzea abiarazitako politikak zenbaterainoko arrakasta izan duten neurtzeko; bestetik, diagnosiak iradokitzen dituen hobetze-neurriak aplikatzea; eta, azkenik, ikastetxeei pedagogia-, antolamendu- eta kudeaketa-autonomia ematea, beren ikasleen beharrezanezko modu eraginkorragoan erantzuteko (ondoren gizarteari azaldu beharko diote, dagozkion ebaluazioen bidez).

Hezkuntza-sistemaren egoerari buruzko 2008/2009 ikasturteko Txostena arretaz irakurri ondoren, honako erronka hauek berehala jorratu behar direla ondorioztatu dugu:

1. Hezkuntza-administrazioek Educa3 Planak hasitako ahalegina areagotu behar dute, eta beharrezko adierazle guztiak ezarri behar dituzte hezkuntza-aro horren kalitatea eta izaera hezitzailea bermatzeko.
2. Hezkuntza-administrazioek ezin dute Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Bigarren Hezkuntzako 2. mailan diagnosiaren ebaluazioa aplikatu besterik egin. Emaitzak aztertzeak aukera ematen duten mekanismoak ezarri behar dituzte, bai eta ebaluazioetatik eratorritako ekintza-planak egituratu ere. Orobat, ikastetxeek beren hezkuntza-proiektuetan familien, ikasleen eta ikastetxeen arteko konpromisoak txerta ditzaten zaindu behar dute, ikasle guztiek etorkizun handiko hezkuntza-garapena izateko.
3. Eskola-porrotaren aurka borroka egiteko aintzat hartu beharrekoak: ikaskuntza-zailtasunak goiz antzematea, zailtasun horiek gainditzeko jarduerak egitea (Haur Hezkuntzatik hasita), aro batetik besterako aldaketak kontu handiz egitea, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (DBH) Presazko Ekintza Plan Orokor bat abiaraztea, ikasle guzti-guztiek aukerak izan dezaten derrigorrezkoaren ondoko ikasketak edo prestakuntza izateko, batxilergoan, prestakuntza-zikloetan edo Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programetako batean (horiek DBHko ikastetxe guztietan eskaini beharko dira). Aipatutako Planak eragin behar du ikasle gehienek titulua eskuratzea

edo, gutxienez, lortutako oinarritzko gaitasunen egiaztagiri bat lortzea, beren prestakuntza jarraitu ahalko dutela bermatzeko.

4. Nahitaezkoa da Hezkuntzako Konferentzia Sektorialak Eskola Uzteari Aurre Egiteko Planean aurreikusitako neurriak sustatzen jarraitzea, derrigorrezkoaren ondoko ikasketa-tituludunen tasak igotzeko.
5. Diru publikoa hezkuntzan inbertitzea da etorkizuneko inbertsiorik onena. Hori dela eta, Eskola Kontseiluaren aburuz, Hezkuntza Konferentzia Sektorialak gastu publikoa handitu behar du datozen hamar urteetan, Europar Batasunak 2020rako ezarriko dituen helburuak lortze aldera. Horretarako, politika bateratu eta koordinatuak sustatu beharko lirakeke gastuaren lehentasunei eta horien eraginkortasun gorena lortzeari dagokionez.
6. Hezkuntza-administrazioei dagokie ezintasunak dituzten ikasleei behar duten laguntza-baliabideak ematea hezkuntza-aro guztietan, ez bakarrik hezkuntza-sisteman egon daitezela bermatzeko, baizik baita sisteman aurrera egiteko ere, legeak ezartzen dituen bazterketa-ezaren eta irisgarritasun unibertsalaren hatsarreak kontuan hartuta.
7. Irakasleak funtsezko osagarria dira sistemaren kalitatean. Horregatik, eta unibertsitateen autonomia kaltetu gabe, estatuko eta autonomietako administrazioek bermatu behar dute Lehen zein Bigarren Hezkuntzako irakasleen hasierako prestakuntza kalitatezkoa eta zorrotza dela. Zehazki, ahalegina egin behar dute praktikek etorkizuneko irakasleen prestakuntza nabarmenki hobe dezaten eta lanean ari diren irakasleen eskarmentua ahal bezain errentagarri bihur dadin. Halaber, premiazkoa da gizarteak irakasleekiko duen begiramena sendotzea eta Irakasle Funtzionarioen Estatutua negoziatzea, benetako aurrerapen profesionala ezartzeko.

Azkenik, Hezkuntza Ministerioari eskatzen diogu Adierazleen Estatuko Sistemari txerta ditzala abiarazten diren jarduerak guztiak aztertze beharrezko adierazle guztiak, goian zerrendatutako erronka berri horiei guztiei aurre egite aldera.

#### *Txostenaren formari eta edukiei buruz*

Aurreko ikasturteetan onartutako egitura bera erabili da arreta 2008/2009 ikasturteko alderdirik garrantzitsuenetan jartzeko, hori baita analisi honen xedea, estatistikek eta dokumentuetan jasotako informazioak ematen dituzten



datu eta ñabarduren aberastasunari muzin egin gabe. Aurreko ikasturtearekin egin bezala, Kontseiluak administrazioei jakinarazten dizkion hobetzeko proposamenak ahal bezain beste ezagutarazteko, estatuko hizkuntza ofizial guztietan eta ingeleraz ere argitaratuko dira. Horren guztiaren xedea da hezkuntza-komunitateak instituzioetan duen eragina ahalik eta gehien handitzea.

Txostena hiru atal nagusitan egituratzen da: *I. atalean* 2008/2009 ikasturteko gertaerarik garrantzitsuenak aztertu dira.

*II. atala* hezkuntza-sistema osoari eragiten dieten hobetzeko proposamenekin hasten da, eta aurreko txostenetan landutako zazpi kapituluak bere horretan utzi dira: hezkuntza-sistemako lau aro nagusientzat atal bana, eta beste hiru atal garrantzizko beste hainbeste alderdiri buruz, hots, hezkuntza-gastua, ikastetxeetako bizikidetzeta eta berdintasuna, eta hezkuntza-partaidetzeta. Aurten besta bi gai gehitu dira, ordea: ikasleen hasierako prestakuntza, eta ezintasunetik eratorritako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak txertatzea. Bederatzi kapitulu horietan guztietan jaso dira, hortaz, Estatuko Eskola Kontseiluaren iritziz hezkuntza-administrazioei jakinaraztea komeni diren *hobetzeko proposamenak*.

*III. atalak* estatistika eta dokumentuetan jasotako informazioa bildu du, aurreko ikasturteetako txostenen egitura bera errespetatzen duen epigrafeekin sailkatuta, datuak errazago aurkitu, aztertu eta erkatzeko.

Aipatutako hiru ataletan deskribatutako informazio guztia paperezko argitalpenarekin batera (I. eta II. atalak) doan CDan ageri da. Espainiako hezkuntzaren alderdirik garrantzitsuenak hobetzeko proposamenak eta sistema orokorrean hobetzeko egindakoak *separata* batean argitaratuko dira, ahalik eta hedapen handiena izan dezaten.

*Carmen Maestro Martín*  
*Estatuko Eskola Kontseiluko lehendakaria*

# Hobetzeko proposamenak

---

## 0. Orokorrak

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak proposatzen du hezkuntza-administrazioek ikastetxeen autonomia gauza dezatela, Hezkuntzaren Lege Organikoak (HLO) agintzen duen zentzuan, beren beharrezanaren diagnostik abiatuta hezkuntza-proiektuak lantzeko, hezkuntza-komunitate osoaren lankidetzara, konpromiso eta partaidetzarekin.

Ikastetxeen autonomia estuki lotua dago ebaluazioekin eta azalpenekin. Horregatik, ikastetxeei barne-azterketak egiten laguntzeko eta hezkuntza-sistemaren egoeran eragina duten alderdi guztien diagnosi xehea egin ahal izateko, Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-administrazioei eskatzen die gara ditzatela ikaskuntza-zailtasunak eta eskola-uzte goiztiarrak garaiz antzemateko adierazleak, eta egin ditzatela ikerketak honako gai hauei buruz: Haur Hezkuntzako bi zikloak bi ikastetxetan egitearen abantaila edo desabantaila buruz, hainbat lurraldetan garatzen ari diren bi edo hiru hizkuntzako egitasmoen buruz, eta kurtsua errepikatzeari eta horrek eskola-arrakastan dituen ondorioei buruz.

Halaber, Kontseiluak uste du ikastetxe guztiek maila berean hartu behar dutela beren gain ikasleak modu orekatuan eskolaratzeak dakartzan zailtasunen ardura, eta xede hori lortzeko baliabide egokiak izan behar dituztela eskura. Hori dela eta, hezkuntza-administrazioei gomendatzen die har ditzatela behar beste neurri (antolamenduzkoak edo arauzkoak) ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola/irakasle ratio eta hezkuntza-orientaziorako talde berdinak lortze aldera (egoera bereziak direla medio esku-hartze bereziak behar dituzten ikastetxeetan izan ezik).

2.) Aurreko urteetan bezala, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatzen die egin dezatela hezkuntza-eskaintzaren plangintza egoki bat, pertsona guztien oinarriko hezkuntza-eskubideak bermatzeko eta eskolatzeko oso eta orekatua gauzatzeko, bai eta honako baldintza hauetan dauden ikasleak ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxe pribatuetan txertatzea bultzatzeko ere: jatorri atzerritarrekoak, gizarteak bertan behera uzteko edo baztertzeko arriskua edo horrekin lotutako arazoak dituztenak, edota hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak; horretarako, hezkuntza-

administrazioak beharrezko baliabideak (materialak edo giza baliabideak) eman beharko dizkie.

**3.)** Estatuko Eskola Kontseiluaren ustez lankidetzaren handiagoa behar da Espainiako Udalak eta Probintzien Federazioaren eta hezkuntza-administrazioen artean, administrazio zentralaren, erkidegoetako administrazioen edo udal-taldeen artean koordinatutako hezkuntza-ekimenak sustatu eta arrazionalizatzeko. Izan ere, horri esker eskolatutako biztanle guztiak hobeto eta osoki artatu ahaliko dira, eta udalen partaidetza garatu ahaliko da zenbait arlotan; hala nola, Haur Hezkuntzaren eskaintza orokortzea, helduen hezkuntza, erregimen bereziko ikasketak eskaintzea, ikastetxe publikoak mantendu, ibilarazi eta konpontzeari dagokionez udal-ekintzen betebeharra, udal-liburutegiek irakurketa sustatzeko egiten duten lana, geroz eta kolektibo gehiagok Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT) erabiltzea, udalen lankidetzaren etorkintaldeak txertatzeko orduan, eta eskola-porrota murrizten lagun dezaketen neurri guztiekin konpromisoak hartzea.

**4.)** Estatuko Eskola Kontseiluak Diputatuen Kongresuarekin bat egin du eta hezkuntza-ondarea babesteari buruzko ez-lege proposamena sostengatu du; proposamen horretan Gobernuari eskatzen zaio proposa dezala Hezkuntzaren Kontseilu Sektorialean hezkuntza- eta historia-ondarea babestu, gorde eta hedatzeko plan bat. Plan horrek egiteko hauek behar ditu bere baitan, besteak beste: ondarea osatzen duten ondasunen inbentarioa eta katalogoak egitea, dokumentu-funtsak eta zientzia-bildumak gordetzeko neurriak, eskola-erakin historikoak zaintzeko estrategia, ondareari buruzko ikerketak eta jakinarazpena, eta plana gauzatzeko aurrekontu-kredituak.

**5.)** Estatuko Eskola Kontseiluak uste du komenigarria dela irakasle funtzionario ez-unibertsitarioen estatutuak benetako igoera profesional bat ezartzea (bai bertikala eta bai horizontala), irakasleei ongi egindako lana aitortzeko. Orobat, irakaskuntzako funtzio publikoaren estatutu bat premiaz negoziatzea proposatu du, irakaskuntza publikoko irakasleen eskubideak eta eginbeharrak ez ezik, lan-profil egokiak zehazteko eta gizarteak hezkuntza-funtzio publikoaren lanari buruz duen iritzia hobetzen jarraitzeko; gainera, borondatezko erretiro aurreratu eta sustatua 60 urtera atzeratzea ere jaso beharko luke. Izan ere, neurri hori irakasleei aitortzen zaien eskubidea da, beren eginkizunaren ezaugarriak direla medio, eta zahartzen ari den giza talde hori hein batean berritzea ekarri du, gainera.

**6.)** Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eskatzen dio landu dezala, 2020rako helburuei begira, Ceuta eta Melillarako ekintza-plan oso bat,

horien hezkuntza-egoera eta eskola-emaizak Estatuko eta Europako batez bestekoetara moldatzeko. Plan horrek aldizkako ebaluazioak aurreikusi beharko lituzke, eta neurrietako batzuek talka-ekintzak izan beharko dute, ziurtatzeko ikasle bakar bat ere ez dadila irten Lehen Hezkuntzako lehen ziklotik idazten eta irakurtzen jakin gabe.

7.) Estatuko Eskola Kontseiluak eskatzen du datuen desagregazio-prozesuak aurrera jarrai dezala, bai sexuen arabera eta bai ikastetxe publiko, pribatu eta itunpekoen datuei dagokienez, hezkuntza-sistemaren ikuspuntu benetakoago bat eduki eta, horrela, neurri eraginkorragoak garatu ahal izateko.

## **1. Haur Hezkuntza**

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak aitortzen du Ministerioak eta hezkuntza-administrazioek zein tokiko administrazioek eskolatzeari dagokionez egindako lana, Haur Hezkuntzako lehen zikloan eta Educa3 Planaren baitan, zehazki. Baina eskatzen die aurrekontuetan ahalegin handiagoa egin dezatela, egungo beharrianei erantzuteko adina plaza publiko sor ditzaten —Haur Hezkuntzako lehen zikloan alde handia baitago eskaintza publikoaren eta pribatuaren artean—, eta bete ditzatela hezkuntza-arorretako eskolatzeari buruz Europar 2010erako ezarritako helburuak.

Nolanahi ere, oso ongi iritzi zaio hainbat autonomia-erkidegotan hezkuntza-administrazioen mendekoak ez diren lehen zikloko zentroak Hezkuntza Sailerara eskualdatzeari, eta gainerako erkidegoei ere gauza bera egiteko eskatzen die, aro horretako hezkuntza-helburu saihestezinak bermatze aldera.

2.) Kontseiluak hezkuntza-administrazioei proposatzen die berma dezatela ikasle atzeritarren bidezko eskolatzeari lehen zikloa emateko funts publikoak jasotzen dituzten ikastetxe guztietan, eta, horretarako, ikastetxe horiek beharrezko giza baliabide eta materialez horni ditzatela. Orobat proposatzen zaie ezar dezatela ikasleak onartzeko irizpideak erregulatzeko beharrezko araudia, ikastetxe publiko eta pribatuen arteko alde orekatzeko eta ikasle guztiei kalitatezko hezkuntza bermatzeko.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eskatzen dio zuzen dezala, Hezkuntzaren Kontseilu Sektorialaren baitan, Educa3 Planaren ebaluazioa, eta Ebaluazio Institutuak ezar ditzala dagozkion kalitate-adierazleak honako alderdi hauek erabakitzeke: ikastetxeetako pedagogia-proiektuen

kalitatea, horiek zikloaren hezkuntza-izaerara eta ikastetxeetako gutxieneko eskakizunen aplikaziora moldatzen diren ala ez, ikastetxeen eta hezkuntza-zerbitzuen titularitatea, zerbitzu horretako langileen titulazioa, emakumezko langileen gehiengo nabarmenarekin bukatzen saiatzea, hornikuntzen kalitatea, ratioak, bigarren zikloa eskaintzen duten ikastetxeekin koordinatzea, familien asebetetze-maila, eta inbertitutako baliabide publikoen eraginkortasuna.

4.) Estatuko Eskola Kontseiluak berriro eskatzen die hezkuntza-administrazioei ahalegin handiagoa egin dezatela hezkuntza-laguntzarako beharrian bereziak eraginkorki eta goiz antzemateko, bereziki ezintasunen batetik eratorritakoak, horiek ahalik eta arinen artatzea lehen mailako faktorea baita kalitatezko hezkuntza inklusiboak arrakasta izan dezan.

5.) HLOak 14.7. artikuluan xedatzen du hezkuntza-administrazioek arautu behar dituztela ikastetxeek Haur Hezkuntzako lehen ziklorako bete beharreko eskakizunak; aukera-berdintasunaren hatsarrea bermatzeko haurrak txikitatik eskolatzeko duen garrantzia aintzat hartuta, Estatuko Eskola Kontseiluak Administrazio Zentralari eskatzen dio abiarazi dezala beharrezko lege-erreformen prozesua premiazko estatu-esparruak eratzeko eta ikastetxeen gutxieneko eskakizunak zein gutxieneko ikasketak ezartzeko, batez ere Haur Hezkuntzako lehen zikloari dagokionez. Halaber, autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioei eta Estatuko Hezkuntza Administrazioari proposatzen die Hezkuntzaren Kontseilu Sektorialaren baitan ados dezatela zer gutxieneko eskakizun bete behar dituzten aipatutako ziklo hori ematen duten ikastetxe guztiek, legeak aro horri egozten dion izaera hezitzailean oinarrituta.

## **2. Lehen Hezkuntza**

1.) Lehen Hezkuntzako 4. mailan, 2009ko udaberrian aplikatu zen diagnosiaren ebaluazioa lehen aldiz. Horren harira, Kontseiluak uste du aplikazioaren emaitzek tresna abantailatsua izan beharko luketela ikaskuntza-zailtasunak antzemateko eta hobetzeko neurriak hartzea bultzatzeko. Hori dela eta, administrazioei eskatzen diegu heda dezatela ebaluazio hori ikastetxe guztietara, hezkuntza-komunitate osoarentzat orientatzeko eta hobetzeko balio baitu.

Kanpo-ebaluazioen emaitzetatik abiatuta, hezkuntza-administrazioek ikastetxeetan esku hartu beharko dute, lehenik, hezitzaileei emaitzen barne-analisia eskatuz; bigarrenik, hezkuntza-proiektuan sartuko diren hobekuntza-helburuak adostuz (proiektu horretan zehaztuko dira, halaber, beharrezko pedagogia-eta antolamendu-

autonomiarako neurriak); eta, hirugarrenik, ardurakidetza-dokumentu bat landuz, ikastetxeetako hobekuntza-konpromisoak zerrendatzeko, bai eta proposatutako kalitate-helburuak lortzeko administrazioek emango dituzten giza baliabide zein materialak ere (ratioak, erdibitzeak, taldekatzeak, eta abar). Azken dokumentu horretan ezarriko dira, urtero konpromisoak berritzeko helburuarekin, ebaluazioak egiteko eta horien berri emateko mekanismoak.

**2.)** Estatuko Eskola Kontseiluak egokitzat jo ditu hezkuntza-administrazioek irakurketa sustatzeko egindako ahaleginak, baina, iazko txostenean ere adierazi bezala, uste du beharrezkoa dela plan berezi bat egitea (hornidurei, langile adituei eta diru-laguntzei buruzkoa, besteak beste) ikasle guztiek eduki dezaten behar duten prestakuntza, tresna eta baliabide oro arlo honetako xede nagusia lortzeko, hots, Lehen Hezkuntza bukatzen duten ikasle guztiek irakurtzeko ohitura eta gozamena eskuratzea eta, horren ondorioz, baita irakurketa-ulermenean maila ona ere; izan ere, irakurketa giltzarria da gainerako oinarrizko gaitasunetan arrakasta izateko. Planaren eraginkortasuna bermatzeko, dagokion ekonomia-memoria eta lortutako emaitzen urteko analisisa ere egin beharko lirateke.

**3.)** Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei gomendatzen die ahalegin handiagoa egin dezatela Haur Hezkuntzatik Lehen Hezkuntzarako jauzia errazteko, bai eta Lehen Hezkuntzatik Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzara (DBH) igarotzeko ere, aro eta maila horietako irakasleen artean lankidetzak programak sortuz; programa horietan laguntza-baliabideak ere aurreikusi beharko lirateke.

**4.)** Lehen Hezkuntzan, 12 urteko ikasleen egokitasun-tasa errearen eta Erreforma Programa Nazionalan (2005ean onartu zuen Gobernuak, Lisboako 2010erako helburuen harira) adierazitako egokitasun-helburuen arteko aldea ikusita, Estatuko Eskola Kontseiluak beste behin eskatzen die Hezkuntza Ministerioari eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioei eraginkorki sendo ditzatela Lehen Hezkuntzako ikasleen aniztasunarekiko arreta-neurriak, batetik, ikaskuntza-desorekei aurre egiteko eta, bestetik, derrigorrezko hezkuntzan egokitasun-tasak igoarazteko; izan ere, horrela eskola-porrotak nabarmenki egingo luke behera, baita eskola-uzte goiztiarrak ere, derrigorrezko ikasketak bukatzean.

Goian esandakoaren ildo berean, Estatuko Eskola Kontseiluak arduraz ikusi du PROA (“Plan de Refuerzo, Orientación y Apoyo”) planak ez direla homogeneouski aplikatu autonomia-erkidego guztietan, horregatik, Ministerioari gomendatzen

dio Hezkuntzaren Konferentzia Sektorialaren baitan gida dezala Plan horien analisia, izan ditzakeen gabeziak antzemateko, beste kalitate-irizpide batzuk ezartzeko eta funts publikoen erabilera eraginkorra den ala ez egiaztatzeko.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eskatu dio, baita neurri hau oraindik hartu ez duten hezkuntza-administrazioei ere, ikasgela bakoitzeko gehienez ere 20 ikasle jar ditzala, eta jaits dezala kopuru hori hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak eskolatzen direnetan.

Orobat, hezkuntza-administrazioei eskatu zaie ziurta ditzatela behar hainbat irakasle (beren irakaskuntza-jarduerak ezintasunak dituzten ikasleen hezkuntza-beharrizantara doitzeko prestakuntza egokia dutenak), bai eta titulu edota prestakuntza egokia duten langileak ere; eta ezar ditzatela programa bereziak ikastetxe publikoetan zein itunpeko ikastetxe pribatuetan hezkuntza-sostengu bereziak behar dituzten ikasleak artatzeko.

### **3. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza**

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak bere ardura adierazi nahi du egokitasun-tasen beharrezko bilakaera dela eta, horiek eragin zuzena baitute eskola-porrotean eta eskola-uzte goiztiarrean. Gainera, DBHko titulua lortzen dutenen ehunekoa Europar Batasuneko (EB) beste herrialdeetako baina txikiagoa da, eta alde nabarmenak daude autonomia-erkidegoetako kopuruen artean. Hori dela eta, bikaintasunari muzin egin gabe, baina ikasle guztiek oinarritzko gaitasunak lortze aldera, Kontseilu honek Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-administrazioei eskaera hauek egiten dizkie: egoera hori gainditzea, ahaleginaren kultura eta espiritu ekintzailea sustatzea, aniztasunarekiko arreta-planak eta -jarduerak egiten jarraitzea, ikaskuntza-zailtasunak gainditzera zuzendutako ekintzak indartzea (erdibitzeak eginez edo arlo instrumentalak sendotuz, esaterako) eta dibertsifikazio-programak ugaritzea, bai eta PROA planak ere (azken horiek dagokien unean aztertu beharko dira).

Horrez gainera, Premiazko Ekintza Plan Orokor bat egitea ere proposatzen da, Hezkuntzako Konferentzia Sektorialean Mahai Sektoriala entzun ondoren, txosten honetan islatzen diren arazoak jorratu eta, horrela, HLOko II. Tituluan zehaztutako hezkuntza-berdintasuna gauzatzeko; ez da ahaztu behar, ordea, arrazoi sozialak edo kulturalak direla medio, beharrezko konpentsazio-neurriak hartu beharko direla hezkuntza-beharrizan bereziko ikasle ugari dituzten ikastetxeetan, eta ikasle horiek ikastetxeetan pilatzea ekidin beharko dela.

**2.)** Estatuko Eskola Kontseiluaren eta gizartearen beste arduraren bat da eskola-uzte goiztiarra, lotura zuzena baitu DBH inongo titulurik gabe bukatzen duten ikasle-kopuru altuarekin. Zoritxarrez datuak ez dira hobetu joan den ikasturtean, eta aurreko txostenetan adierazitako erkidegoen arteko aldeek beren horretan jarraitzen dute. Ontzat jotzen den arren Hezkuntzako Konferentzia Sektorialak onartutako eskola-uzteari aurre egiteko plana abiaraztea, premiazkoa da derrigorrezko hezkuntza inolako titulurik gabe bukatzen duten ikasleei etorkizunerako bideren bat ematea. Zehazki, ikasle horiei egiaztagiria bat ematea proposatzen da; egiaztagiria hori baliozkoa izango da lan-munduari dagokionez, eta aukera emango die beren egoeraren eta gaitasunen arabera lanbide-ziklo jakin batzuetara jotzeko.

**3.)** Ikasleen arrakasta hobetu eta eskola-uzte goiztiarra murrizte aldera, beharrezkoa da hezkuntza-administrazioek ikastetxeei ahalegin berezia eskatzea horretan. Eta, horrekin batera, ahalegin hori akuilatu, bideratu eta sostengatzea ere. Horretarako, eta HLOn aurreikusitako autonomia-esparruan, hezkuntza-administrazioen lana da ikastetxe guztietan, bakoitzaren egoera aztertuta, helburu zehatz eta errealistak ezar daitezkeen bultzatzea eta helburu horien arabera ikastetxeetako Urteko Plangintza Orokorrean jaso beharko diren hobetzeko neurri zehatzak hartzea. Neurri horiek barne hartu beharko dituzte, besteak beste, ikasleen beharrezanetan oinarritutako irakaskuntza-estrategiak, familien eta ikastetxearen arteko hezkuntza-konpromisoak eta, ikasleen egoerak ikusita, lanerako informazio- eta orientazio-sistema eraginkor bat.

Halaber, Hezkuntza Ministerioari eskatzen zaio ikerketa zorrotzak egin ditzala ikasleek titulua lortzearekin zerikusia izan dezaketen beste alderdi batzuei buruz; hala nola, ikasturtea errepikatzea, DBHko ikasleen benetako eskola-ordutegiak, irakasleak zenbatetan eta zergatik ez diren eskolara joaten, eta huts horien ondorioak kontrolatu eta orekatzeko administrazioek hartzen dituzten neurriak.

**4.)** Nesken eta mutilen emaitzen arteko aldeek bere horretan diraute. "Eskola-porrota" deritzona maizago gertatzen da mutilen artean. Premiazkoa da, hortaz, hezkuntza-administrazioek gabezia horren zergatiak ikertzen hasi eta plan bereziak lantzea; plan horien baitan izan beharko lituzkete gazteentzat hezkuntza-eskaintza erakargarria, familiek kontzientzia hartzeko kanpainak, eta baita familia-gabeziak dituzten edo eskola baztertzen duten ikasleentzako jardunbide bereziak ere.

**5.)** Bestalde, Estatuko Eskola Kontseiluak uste du Hasierako Lanbide Prestakuntzako Programak direla arreta-neurririk onenak programa horietan



dauden ikasleen aniztasunaren aurrean. Hala, bada, beharrezkoa da hezkuntza-administrazioak eta Hezkuntza Ministerioak eskaintza erakargarria eta behar adinakoa sortzea, egungo eskaria asetzeko, eta ez dezatela baliabide eskas erabili gisa horretako programak DBHko ikastetxe guztietan ezartzeari dagokionez. Kontseiluak beharrezko deritzo, halaber, oinarri komunak eta ikasturteen iraupena Estatu osorako eta era bateratuan ezartzeari. Orobat proposatzen du hasierako prestakuntza profesionaletik erdi-mailako heziketa-zikloetara igaro ahal izatea, ingurune sozioekonomikoa eta benetako heziketa-eta enplegu-beharrizanak aintzat hartuta, besteak beste.

#### **4. Derrigorrezkoaren ondoko hezkuntza: Batxilergoa eta Lanbide Heziketa**

1.) Espainiak gabezia larriak ditu oraindik 18 urtetik 24rako adin-tartean derrigorrezkoaren ondoko Bigarren Hezkuntzako titulazio-tasari dagokionez. Europako 2010erako helburua (% 85) urruti dago oraindik, hortaz. Horrez gainera, Estatuko Eskola Kontseilua arduratuta dauka Batxilergoan eta Lanbide Heziketan matrikulatzen diren gazte-kopuruaren arteko desorekak ere. Hori dela eta, hezkuntza-administrazioei honako hau gomendatzen zaie: matrikulatze- eta titulatu-tasak igotzera bideratutako neurriak hartzea, ahaleginaren kultura eta espiritu ekintzailea sustatzea, lanerako informazio-eta orientazio-sistema integratua ezartzea, ekoizpen-sistemaren eskarrietara egokitutako hezkuntza-eskaintzari buruzko informazio-kanpainak sustatzea, eta malgutasun handiagoa ezartzea heziketa-zikloen artean zein horien, Batxilergoaren eta unibertsitatearen artean.

Ildo berean, Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eskatzen dio alda dezala egungo araudia erdi-mailako heziketa-zikloak egiten ari diren ikasleek goi-mailako heziketa-zikloetara zuzenean jo ahal izateko (ziklo horiek jarraipena badute), erdi-mailakoak gainditutakoan, bistan da. Eskuratutako tituluarekin zuzenean lotuta ez dagoen goi-mailako batera jo nahi bada, berriz, prestakuntza-ikasturte berezi bat gainditu beharko dute Goi-mailako Heziketa Zikloetara iristeko, eta horrek garrantzia nabarmena izango du aldaketa horretan.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak Batxilergoaren egungo egitura berrikustea gomendatzen du, horren antolamendua malgutze aldera; hartara, Batxilergoa uzten duten ikasle gehiagok lortu ahal izango ditu hezkuntza-aro horretako helburuak, beren ezaugarri eta egoera pertsonalera gehiago egokitutako antolaera bati esker. Orobat proposatzen du hezkuntza-aro horretako eskaintzaren kalitatea

eta askotarikotasuna areagotzea, Estatu osora hedatzea gaueko eta urrutiko Batxilergoen eskaintza, behar adinakoa eta ongi antolatua, eta orientazioa sendotzea DBHko azken urtean, ikasleek informazio zabala izan dezaten (Bologna Planak aurreikusitako unibertsitate-ikasketen diseinuari buruzkoa, besteak beste) eta, horrela, beren gaitasun eta interesetara gehien doitzen den ildo edo jarraipena aukera dezaten. Unibertsitaterako sarrera-proba berriak abiarazteko nahitaezkoa da Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen eta unibertsitatearen artean koordinazio egokia izatea, azken horiek probetako edukiak eta eginkizunak Batxilergokoetara doi ditzaten; halaber, Ministerioari eta hezkuntza-administrazioei proposatzen zaie ezar dezatela moduren bat proba-eredu berriaren jarduna aztertzeko, ezarritako helburuak betetzen ote dituen frogatzeko.

**3.)** Estatuko Eskola Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du Erdi Mailako Lanbide Heziketan matrikulatzen direnen kopurua igotzera bideratutako neurri guztiak garatzen jarraitzea: HLOren arabera Lanbide Heziketako titulu-katalogoa garatzen bukatzea, ikasketa horiek kalitate-bermearekin ematen dituzten ikastetxe-kopurua handitzea, Lantokiko Prestakuntza (LP) zikloa bultzatzea (LPren zati bat beste herrialde batzuetan egiteko aukera eman ez eta hezkuntza-administrazioek finantzazio-mekanismo bereziak sortuz, ziklo horiek ikasten ari diren ikasleentzat). Eskola-uzte goiztiarra ekiditeko, Lanbide Heziketako (LH) ikasleentzako beka berezien plan bat eratzea gomendatzen da, baita ikasle eta enpresarietarako ordainsarien sistema bat ere, hezkuntza eta lanaldi partzialeko enplegua bateratzeko hezkuntza-enplegua formulak garatuz.

**4.)** Egungo ekonomia-krisia aintzat hartuta, indarrean jarraitzen du Estatuko Eskola Kontseiluak iaz egindako gomendioak, Bigarren Hezkuntza ez duten helduei arreta berezia jartzeari buruzkoak; izan ere, pertsona horiek hezkuntza-sistemara itzuli ahalko lirake DBHko titulua lortzera edo Erdi Mailako LH egitera, gehienbat. Horretarako neurri hauek hartu beharko lirake: titulazio-eskaintza handitzea (Borondatezko Gizarte Lana barne), bertaratu beharreko ikasketak malgutzea, gaueko eskaintza handitzea eta tele-prestakuntzarako plataformak edo urrutiko hezkuntza garatzea. Estatuko Eskola Kontseiluak orobat uste du komenigarria dela Zentro Integratuen Sarea hedatzea, dauden giza baliabideak eta materialak ahal bezain ongi erabiltzeko eta LHren bi azpizistemak batera prestatzeko. Nolanahi ere, hedapen horrek ezingo du eragin integratuta ez dauden ikastetxeak kaltetzea edota haien baliabideak murriztea.

**5.)** Oso onuragarritzat jotzen da Lan Administrazioako Profesionaltasun Ziurtagirien bidez 1. mailako lan-gaitasunak aitortu eta egiaztatzeko prozesua hasi izana, Kontseilu honek aurreko txostenetan gomendatu bezala. Baina

neurri hori guztiz gara dadin, eta langileen mugikortasuna bermatze aldera, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatzen die gaitasunak balioztatzea, aitortzea eta egiaztatzea modu berean egin dadila Estatu osoan, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionala erreferentziatzen hartuta. Balioztatzeak, aitortzak eta egiaztatzeak lanbide-izaera duten ikasketak guztiak barne hartu beharko lituzkete.

## **5. Hezkuntza-gastua**

1.) 2009ko ekitaldian hezkuntzarako gastu publikoak gora egin duen arren, Espainiak atzean jarraitzen du BPGren ehunekoak aintzat hartuta, EBko eta ELGAko (Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea) kideen batez bestekoarekin erkatuz gero. Estatuko Eskola Kontseiluak berriro adierazi nahi du gastu publikoa handitu beharra dagoela EBko herrialdeen batez bestekora gerturatzeko, gure hezkuntza-legediak ere hala agintzen baitu, gainera.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eta autonomia-erkidegoetako hezkuntza-administrazioei eskatzen die oreka ditzatela lurraldeen arteko aldeak hezkuntza-gastuari dagokionez, eta areagotu dezatela hezkuntza-inbertsioaren erritmoa, BPGren % 7ra iritsi arte, horrela, EBko herrialde gehienekiko daukagun gabezia historikoa zuzendu ahal izateko.

3.) Egungo ekonomia-egoera zaila gorabehera, ez dugu ahaztu behar hezkuntza-gastua ezin ukatuzko balioa duen inbertsioa dela, ekonomiari eta enpleguari dagozkion datuak hobetze-aldera. Hori, eta pertsona guztiei kalitatezko hezkuntza bat emateak dakartzan berdintasuna eta oreka (norbanakoentzat zein gizartearentzat) aintzat hartuta, Kontseiluaren gomendioa da egungo hezkuntza-gastuari eustea ez ezik, gastua areagotzea, goian aipatutako mailaraino, hezkuntza bihur dadin egungo krisi ekonomikoa gainditzeko bide nagusietako bat.

4.) Hezkuntza-administrazioek hezkuntzarako gastu-publikoa areagotu izana (gure ingurune geografiko, politiko eta ekonomikoko herrialdeetako batez bestekoarekin berdintzeko) legez adierazi behar da, egungo Hezkuntzaren Lege Organikoa indarrean jarri eta hurrengo hamar urteetarako plan baten bidez. Hala, bada, hezkuntza-administrazioei eskatzen zaie urratsak egin ditzatela, Hezkuntzaren Kontseilu Sektorialaren baitan, hezkuntza-gastua handitzeko plan hori ezartzera bidean; horretarako, politika bateratu eta koordinatuak sustatu beharko lituzkete, gastuaren lehentasunei zein eraginkortasun-maila

handiena lortzeari dagokienez, eta ikasleak jarri beharko lituzkete hezkuntzako gastu publikoaren politikaren oinarrian.

**5.)** Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eskatzen dio legez ezar dezala zenbaterainoko aldea egon daitekeen, gehienez, autonomia-erkidegoen hezkuntzarako gastu-publikoaren eta ezarritako batez bestekoaren artean, hezkuntzan ez inbertitzeak ez dezan eragotzi, batetik, autonomia-erkidego guztietan heziketa berdintasunez, kalitatez, eta berme berdinekin ematea eta, bestetik, Espainiako batez bestekoa ez dadin jaitsi eta are gehiago urrutiratu Estatu osorako ezarritako helburuetatik.

## **6. Bizikidetzeta eta berdintasuna ikastetxeetan**

**1.)** Estatuko Eskola Kontseiluak uste du eskolari etekinik onena ateratzeko modurik hoberena begirunean oinarritutako eskola-giroa dela, eta giro hori lortzeko beharrezkoa dela hezkuntza-komunitatearen partaidetza. Hori dela eta, komenigarria litzateke Hezkuntza Ministerioak Bizikidetzaren Behatokia suspertzea, azken horrek egindako ikerketak sakondu eta hedatzeko. Ikerketa horiek, irakasleen eta ikasleen arteko harremanen kalitatea azpimarratzeaz gainera, ikasleak jotzen dituzte hezkuntzako protagonista nagusitzat, eta gomendio baliotsuak ematen dituzte eskolako giroa hobetzeko; izan ere, bizikidetzeta-arauak adostearen eta gatazkak bitartekaritzaz konpontzearen alde egiten dute. Proposatzen da, orobat, era daitezela bizikidetzari eta ikastetxeetako eskola-giroari buruzko adierazleak, hartutako neurriek (gizalegezko balio eta ohiturez jabetzeko, ikasle atzeritarren txertatze eraginkorra lortzeko edo neska eta mutilen arteko berdintasun eraginkorra lortzeko, besteak beste) giroa hobetzen izan duten eragina neurtzeko.

**2.)** Gomendagarria da arautegi berezi eta oinarrizko bat onartzea; arautegi horrek bermatu beharko luke ikastetxeek beren Hezkuntza Proiektua eta Bizikidetzeta Plana gauzatzeko giza baliabideak eta materialak izango dituztela, eta, halaber, behar adinako antolamendu- gaitasuna izango dutela egoera berezietan erantzun bereziak emateko. Horrez gainera, Hezkuntza Ministerioari eskatzen diogu Errege Dekretu bat egin dezala 1995eko ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzko dekretua eguneratzeko; dekretu berria egungo hezkuntza-sistemara moldatu beharko da eta ikasle guztientzako esparru komuna izango da. Horrez gainera, proposatzen du bizikidetzari eta jardunbide egokien eraginari buruzko arauak berrikustea Hezkuntzaren Konferentzia Sektorialean, eta administrazioak zein hezkuntza-komunitateek sentiberatze-kanpainak

antolatzea DBHko ikasleentzat eta haien familientzat; kanpaina horietan ikasketa sustatzeko eta ikasketa- eta lan-orientaziorako neurri ez-arrazista eta ez-sexistak sendotu beharko lirateke, bai DBHn eta bai Batxilergoan.

**3.)** IKTak eta Internet hezkuntza- eta gizarteratze-tresna boteretsuak dira gazteentzat. Baina, bide berri horiek erabiltzaileei aukera ugari eskaintzen dizkieten arren, ekidin beharreko arriskuak dituzte, ume eta gazteen osotasun fisiko eta psikologikoa babesteko. Hori dela eta, Kontseilu honek hezkuntza-administrazioei gomendatzen die ekimenak gara ditzatela hedabideek eta Internetek ikasleengan duten eragina hauteman eta horiek arrazoiz erabiltzeko beharrezko heziketa sendotzeko.

**4.)** Estatuko Eskola Kontseiluak uste du irakasleen lana aitortu eta horien aginpide moral zein profesionala sustatu behar direla, eta gogoeta egin behar dela irakasleentzako oinarrizko araudi bat sortze aldera (itunpeko ikastetxeetakoak barne); araudi horrek baliozkoa izan beharko luke Estatu osoan. Lege hori beste neurri batzuekin osatu beharko da, hala nola, ikastetxeetan heziketa-lana osotuko duten langile-profil berriak txertatzea, ratioak murriztea, langile-kopurua eta orientazio-sarea handitzea, eta ikasleen prestakuntza hobetzea gatazken ebazpenei dagokionez, beste arlo batzuen artean.

Eskolako giroa hobetzeko funtsezkoa da, lehenik, irakaskuntza-lanari entzute handiagoa ematea; bigarrenik, familiek irakasleen jarraibideak onartzea; eta, hirugarrenik, hedabideek ikastetxeak heziketa-gune gisa ez ezik, kultura-gune gisa ere ezagutaraztea. Garrantzi handia du eskoletako gatazka- edo jazarpen-egoerak hedabideetan ezagutarazteko moduak, eta adingabeen eskubideak babestuko direla zaindu behar du bereziki. Hori dela eta, hezkuntza-administrazioei eta hedabideei eskatzen diegu irits daitezela autoerregulaziorako akordio batera, adingabeokoren eskubideak zaintzeko eta ikastetxeen irudia desitxuratzea galarazteko.

**5.)** Genero-berdintasunari dagokionez, Estatuko Eskola Kontseiluak oinarrizkotzat jotzen du hezkuntza-administrazioek bermatzea uneoro betetzen direla hezkuntza-sistemaren jarduerak arautzen dituzten jarraibideak, hau da, HLOak eta emakume eta gizonen arteko berdintasun eraginkorrerako 3/2007 Lege Organikoak agindutakoak. Horrez gainera, gomendatzen da, batetik, eskola-kontseiluetan arlo horretarako izendatutako pertsoneri garrantzi handiagoa eta prestakuntza berezia ematea eskola-komunitatean; bestetik, protokoloak ezartzea genero-bortizkeria jasan duten ikasleak berehala eskolatzea errazteko; eta, azkenik, berdintasun-plan bereziak sortzea hezkuntza-esparrurako.

## **7. Hezkuntza-komunitatearen partaidetza**

1.) Gizarteko beste sektore batzuek hezkuntzan parte hartzea da hatsarre konstituzionalik garrantzitsuenetako bat, eta horretan oinarritu behar da hezkuntza gure sisteman. Hala eta guztiz ere, uste dugu ez dela nahikoa ezagutzen zein den benetako partaidetza gure ikastetxe eta lurralde-kontseiluetan.

Horregatik, Estatuko Eskola Kontseiluaren aburuz oso garrantzitsua litzateke partaidetza horren neurria zehazki jakitea; horretarako, hezkuntza-administrazioei eta, bereziki, Ebaluazio Institutuari gomendatzen zaie Estatuko Hezkuntza Adierazleen Sistema lantzearekin batera iker dezatela hezkuntza-prozesuen adierazleak gehitzeko aukera, ikasleek ikastetxeetan duten parte-hartzeari buruzko adierazleak ere aintzat hartuz, eta gurasoen parte-hartzeari buruz dauden adierazleak ugarituz. Komenigarria litzateke, halaber, ikasle-eta guraso-sektoreen partaidetzari buruzko adierazleak kontuan hartzea ikastetxeetako eskola-kontseiluetako ordezkariak hautatzeko prozesuetan.

2.) Ikasleen eta horien gurasoen elkartegintza-jarduerari dagokionez, ikusi da elkartegintza-mota horrekin lortutako erregistro eta errolda autonomikoen jarduna ez dela beti irizpide berberen arabera egiten; horrek Estatu osoko datu-bilketa zailtzen du, bai eta elkarteen ordezkaritza-maila zehazteko lana ere. Hala, bada, hezkuntza-administrazioek hala adostu ondoren, oso onuragarria litzateke Konferentzia Sektorialeko Estatistika Batzordeak ikertzea ea komenigarria den Espainiako hezkuntza-estatistiketan ikasleen (unibertsitate-aurrekoak) eta horien gurasoen elkartegintza-jarduerari buruzko alderdiak sartzeari.

3.) Hezkuntza-administrazioek ikasleen eta horien gurasoen elkartemugimendua sostengatu behar dituzte. Sostengu hori gauzatzeko moduetako bat dira administrazioek emandako diru-laguntza publikoak. Aurreko txostenetan bezala, Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatu nahi die eguneratu eta handitu dezatela eskolako elkarteen mugimendura bideratzen diren diru-laguntzen kopurua, jarduera horiek garrantzitsuak baitira gure sisteman hezkuntzarekiko partaidetza indartzeko.

4.) Estatuko Eskola Kontseiluak, aurreko ikasturteko txostenean egin bezala, Hezkuntza Ministerioari eskatzen dio pausoak eman ditzala parte-hartzea arautzeko Errege Dekretu bat onartzera bidean, eta berma ditzala ikasleen gurasoengan partaidetza hori (zuzenekoa edo elkarteen bidezkoa, eta sistemaren maila guztietan) indartzeko baliabide material zein ekonomikoak.

Dekretuak aintzat hartu beharko du, beti ere, autonomia-erkidegoen eskumeneko esparruak bermatzea ere.

## **8. Irakasleen hasierako prestakuntza**

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak Estatuko eta autonomia-erkidegoetako administrazioei eskatzen die zorroztasun eta seriotasunez abiaraz dezatela, unibertsitateen autonomia kaltetu gabe, eta 2009/2010 ikasturtetik aurrera, Bigarren Hezkuntzako irakasleentzako master bat. Master horrek arreta berezia jarriko die honako alderdi hauei: gaitasunetan oinarritutako curriculumak, ikasgaien didaktika eta horien arteko harremanak, tutoretzalanak behar bezala egiteko prestakuntza, didaktikan egungo teknologiak baliatzea eta ikastetxeen jardunari buruzko alderdi oro. Egungo araudiaren arabera, unibertsitateek diseina dezakete urrutiko Bigarren Hezkuntzako master hori. Hori dela eta, Estatuko Eskola Kontseiluak unibertsitateei eta horiekin hitzarmenak izan ditzaketen irabazi-asmorik gabeko erakundeei eskatzen die egin dezatela Bigarren Hezkuntzarako *on-line* master horren plangintza eta garapena, beti ere, Hezkuntza Ministerioak prestakuntza-modalitate horretarako ezarritako kalitate-arauen arabera eta haren ikuskaritzapean, horrela pertsona gehiagok izango baitu master hori egiteko aukera.

2.) Irakasleen hasierako prestakuntzaren eginkizuna gauza dadin eta hezkuntza-sistemak eskatutako kalitate-indizeak lor ditzan, Administrazioak honako alderdi hauek bermatu behar ditu: moduluak (komuna, berezia eta praktikak) eta ikasgaiak elkarren artean egoki lotzea, espezialitateak ezartzeko eta masterra egingo duten ikasleak hautatzeko irizpideak bateratzea, eta hezkuntza-sailek ikastetxeak motiba ditzatela haiek ziurta dezaten kalitatea eta berrikuntza aintzat hartuta hautatuko direla praktiken plangintza eta garapenerako ikastetxe-sarea osatuko duten zentroak.

3.) Estatuko Eskola Kontseiluak nahitaezkoztat jotzen du Bigarren Hezkuntzako irakasleak irakasle-master berrian eskolak emateko txertatze-sistema bat egituratzea, eta ez dezatela praktiken moduluan soilik parte hartu, Bigarren Hezkuntzako irakasleak ezagutzen baitituzte hoberen aro hori eta etorkizuneko irakasleek behar dituzten prestakuntza-beharrizanak. Ordain gisa, lan hori aitortu behar zaie. Hala, bada, Kontseilu honek hezkuntza-administrazioei eskatzen die masterra ematen duten unibertsitateko ikasle-taldeetan Bigarren Hezkuntzako irakasleak ere lankide gisa sartzeari.

4.) Etengabeko heziketa irakasleen eskubide eta eginbeharretako bat da. Estatuko Eskola Kontseiluak uste du irakasleen prestakuntza etengabeko prozesu bat izan behar dela, sistematikoa eta antolatua, eta irakaskuntza-ibilbide osoa hartu behar duela. Irakasleak beren lan-orduetan prestatzea sustatu behar da, lan- eta familia-bizitza bateratzeko ahaleginean laguntzeko, eta prestakuntza ikastetxeetako jarduerekin lotuta egon dadin; hala, bada, ikastetxeek zehaztu behar dute zein diren irakasleen heziketa-beharrizanak. Halaber, unibertsitateekin adostutako programak zabaldu behar dira, eta prestakuntza-plan berriak egungo lan-beharrizanetara moldatu; horren ondorioz, lehenetsuzkoa da hizkuntzak menderatzea, ikasgelan oinarritzko gaitasunak garatzea, IKTak erabiltzea, hezkuntza-beharrizan bereziak goiz hautematea eta horiek behar bezala artatzea. Irakasle-prestakuntzaren eskari guztia betetzeko, Kontseilu honek Internet bidezko hezkuntzaren eskari zabal bat sustatzea eskatzen du.

5.) Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatzen die zain dezatela prozesu guztiaren aurrekontu-estaldura, eta azter dezatela masterra ezarri den Espainiako unibertsitate guztietan, jakiteko ea etorkizuneko irakasleen hasierako prestakuntza benetan iristen den hezkuntza-sistemak eta gizarteak eskatzen duten kalitate-mailara.

Gainera, nahitaezkoa da koordinazio-gabeziatik, araudiak berandu argitaratetik edo abian diren ikasketak aldatzetik eratorritako arazoak konpontzea, horrek guztiak hainbat unibertsitatetan masterra egiten ari diren irakasleengan kalterik eragin ez dezan.

## **9. Ezintasunetik eratorritako hezkuntza-beharrizan bereziak dituzten ikasleak txertatzea**

1.) Estatuko Eskola Kontseiluak hezkuntza-administrazioei eskatzen die ezar dezatela Nazio Batuek 2006an onartutako "Ezintasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena" orientaziorako egitura gisa eta legearen zein botere publikoen hezkuntzako politika, erabaki eta jardueren beharrezko erreferentzia gisa; izan ere, hitzarmen hori 2008tik indarrean dago Espainian, eta guztiz aplikagarria da. Berezi aintzat hartzekoa da Hitzarmeneko 24. artikulua, ezintasuna duten pertsonentzako hezkuntza inklusiboa jorratzen duena.

2.) Estatuko Eskola Kontseiluak beharrezkotzat jotzen du ezintasuna duten ikasleentzako arreta hezkuntza-sistemaren kalitate-adierazleetako bat izatea.



Halaber, nahitaezkoa da ezintasunetik eratorritako hezkuntza-beharrizan bereziak goiz antzematea. Hala, bada, diagnosiek lehenetasunez hartuko dute aintzat ikasle-multzorik, eta laguntza-baliabideak aurreikusiko dituzte hezkuntza-sostengu bereziak behar dituzten ikasleak hauteman eta berehala esku hartzeko; horrela lortu ahalko dituzte ikasle guztientzat ezarritako helburuak. Hain zuzen ere, helburu horiek lortzeko, administrazioek irakasleen kualifikazioa eta gaitasunak eguneratzea bermatu behar dute haien hasierako eta etengabeko prestakuntzan, eta baita hezkuntza-orientazioko arduradunen prestakuntzan ere, gaur egungo baliabideak izan ditzaten (didaktikoak, teknologien erabilera, eta abar) ikasle-mota hori aukera-berdintasunean, kalitatez eta bereizkeriarik gabe artatzeko.

**3.)** Estatuko Eskola Kontseiluak Hezkuntza Ministerioari eta hezkuntza-administrazioei eskatzen die ikastetxeak beharrezko giza baliabideez eta materialez horni ditzatela, batez ere ikastetxe arruntak, gorago aipatutako ezaugarriak dituzten ikasleen hezkuntza-beharrizan bereziei arreta eman eta, horrela, ikasle horiek behar bezala txertatzeko. Ezintasunak dituzten ikasleei hezkuntza-sisteman sartzeko aukera ematea ez ezik, prozesu osoa egin eta bidean gora egin ahal izatea ziurtatzeko, hezkuntza-administrazioek bermatu behar dute hezkuntza-aroz guztietan beharko dituzten laguntza-baliabideak edukiko dituztela, nahitaezkoak ez direnak barne, ezintasunak dituzten ikasleek noranahi iristeko erraztasuna izan dezaten, bai fisikoki, bai komunikazioari, ikaskuntza-erakunde eta teknologia berriei dagokienez, eta bai ikasleentzat antolatzen diren jarduerak guztiei dagokienez ere. Horretan oinarritzen dira, hain zuzen, aukera-berdintasuna, bereizkeriarik eza eta eskuragarritasun unibertsala, hots, legeak arlo honetarako zehaztutako hatsarreak.

**4.)** Estatuko Eskola Kontseiluak proposatzen du, alde batetik, hezkuntza-aroen arteko koordinazio-plangintzak sortzea, baita ikasle-mota horientzako orientazio psikopedagogiko egokia sortzea ere, aro batetik besterako jauzia errazte aldera; horretarako ikasleei zein beren senideei informazioa eman beharko zaie ikasleen gaitasun eta jarrerari hoberen moldatzen zaizkien hezkuntza- eta lan-aukerari buruz; eta horren guztiaren ondorioz, errazagoa izango zaie gero lan-munduan sartzeko. Bestetik, proposatzen du ezar daitezela, ezintasuna duten ikasleek hala eskatzen dutenerako, atzerriko hizkuntza bat ikasteko metodologietarako malgutze-neurriak edo alternatibak, baita lortutako maila egiaztatzeko eskakizunetarako ere, batez ere ahozko adierazpenari dagokionez.

5.) Hezkuntzaren Lege Organikoak agintzen du hezkuntza-administrazioek beharrezko neurriak hartuko dituztela ikasle horien gurasoei bana-banako aholkularitzaz gainera beren seme-alabak hezten laguntzeko behar duten informazioa emateko; informazio horrek eskuragarria eta ulergarria izan beharko du eta, horrenbestez, hala behar balitz, eskuragarritasun-neurriak hartu beharko dira. Hori dela eta, Kontseilu honek administrazioei eskatzen die familien parte-hartzea eraginkorki balia dezatela haien seme-alaben eskolatzeta eta heziketa-prozesuei eragiten dieten erabakietan, baldin eta, esan bezala, gazte horiek ezintasunetik eratorritako hezkuntzarako sostengu-beharrizan bereziak badituzte.





GOBIERNO  
DE ESPAÑA

MINISTERIO  
DE EDUCACIÓN